

Buletineko gaiak:

1. *Ihoteak: ikastolan, ikasleentzat*
2. *Inauteriak: jantokiko oharra*
3. *Tanta elkartasun txartelak*
 - *Eskolaz kanpokoak*
 - *Apartekoak*

Temas del boletín:

1. *Ihotes: en la ikastola y para el alumnado*
2. *Carnavales: nota del comedor*
3. *Tanta, rifas solidarias*
 - *Actividades extraescolares*
 - *Otros temas*

Berri orokorrak

1. Ihoteak: ikastolan eta ikasleentzat bakarrik

Aurten ere, bizi dugun ezohiko egoera dela eta, Ihoteak ezberdin ospatuko ditugu: ikastolan bertan egingo ditugu Oiartzungo inauteri festari dagozkion ekintzak. **Kontuan izan ikasleentzat bakarrik izango direla, burbuilaka egingo dituztela, eta gurasoak ez zaudetela gonbidatuta.** Era berean, gogoratu nahi dizuegu **otsailaren 21 astelehena, jai eguna** dela.

2. Otsailak 25, Inauteriak: jantokiko oharra

Inauterietan ospakizun berezirik egingo ez badugu ere, ezinbestekoa zaigu jantokira etorriko diren ikasle kopurua aurrez jakitea. Beraz:

- **JANTOKIAN** aldaketaren bat (alta, baja) egin behar baduzue **otsailaren 22a**, asteartea, izango da azken eguna, idazkaritzako ordutegian. **Horretarako inprimakia bete behar duzue:** <https://forms.gle/T9DKCw1dKtcjQE9e6>
- Denboraz kanpo adierazten dituzuen bajak kobratu egingo ditugu.

Temas generales

1. Ihotes: en la ikastola y para el alumnado

*Un año más, dada la inusual situación que vivimos, celebraremos los Ihotes de forma diferente: realizaremos en la propia ikastola las actividades correspondientes a la fiesta de carnaval de Oiartzun. **Tened en cuenta que van a ser solo para el alumnado, por burbujas y que las familias no estáis invitadas.***

*Asimismo, os recordamos que **el lunes 21 de febrero es festivo** para nosotros-as.*

2. 25 de febrero, Carnavales: nota del comedor

El 25 de febrero no será un viernes de Carnavales habitual, aun así, es muy importante saber cuántos comensales van a usar el comedor:

- **El plazo para avisar de LOS CAMBIOS (altas o bajas) DEL COMEDOR** finalizará el **22 de febrero, martes**, en horario de secretaría. Para ello **rellenad el siguiente formulario:** <https://forms.gle/T9DKCw1dKtcjQE9e6>
- *Las bajas que se avisen después se cobrarán.*



Mesedez, arreta berezia eskatzen dizuegu gai honekin, jantokiko zerbitzuaren antolaketarako ezin-bestekoa baitzaigu ahalik eta informazio zuzenena edukitzea.

DBHko ikasleak 10:00etatik 13:00etara etorriko dira egun horretan, baina ohiko ordutegian bazkalduko dute. Bitarte horretan zaintza zerbitzua izango dute.

Gogoratu, era berean, **otsailaren 28a eta martxoaren 1a jai egunak** direla.

3. Tanta elkartasun txartelak

TANTA egitasmoa ikastolen jaien ekimenez sortu genuen. Jaiok finantzatzeko, urtean zehar diru sarrerak lortzeko bideak irekitzen ditugu: arropa salmenta, txosnak, tonbola, sarrerako kutxak, kultur eta kirol ikuskizunak... Baliabide horietako bat zozketa izan da. Jai bakoitzak bere zozketa antolatu izan du: dirua, auto bat, bidai bat... gauza desberdinak zozkatzen genituen. Helburua bera izanik --jaien autofinantzazioa--, bost zozketa horiek egin beharrean, **ikastolen jaiak elkartasun txartelak egitea erabaki genuen, eta TANTA sortu.**

Txartel bakoitzak 5€ balio du, eta saria **60.000€koa da**. Laguntzeko erabakia hartua du gure ikastolako Kontseilu Errektoreak eta horretarako ikastolako familiei eta langileei **BI TXARTEL** banatuko dizkizuegu martxoan (martxoko errezihoan kobratuko ditugu). Txartelak lortzeko aukera hori herritar orori ere eskaintzen diogu. Prozedura ondorengoa izango da:

Por favor, os pedimos que le prestéis la debida atención a este tema, ya que es imprescindible que tengamos la información más precisa posible para la organización del servicio del comedor.

El alumnado de DBH vendrá de 10:00 a 13:00 ese día, pero comerá en el horario habitual. Tendrán servicio de custodia hasta la hora de comer.

Recordad, asimismo, que el 28 de febrero y el 1 de marzo son días festivos.

3. Rifas solidarias Tanta

El proyecto Tanta surgió por iniciativa de las fiestas de las ikastolas. Para financiarlas abrimos vías para obtener ingresos a lo largo del año: venta de ropa, txosnas, tómbola, cajas de entrada, espectáculos culturales y deportivos. Cada fiesta ha organizado su propio sorteo: dinero, un coche, un viaje, sorteábamos cosas diferentes. Siendo el objetivo el mismo - la autofinanciación de las fiestas -, en vez de realizar esos cinco sorteos, decidimos que las fiestas de las ikastolas hicieran tarjetas solidarias y generaran Tanta.

*Cada boleto cuesta 5€ y el premio es de 60.000€. El Consejo Rector de nuestra ikastola ha tomado la decisión de colaborar y para ello en marzo os repartiremos **DOS TARJETAS** a las familias y trabajadores de la ikastola (las cobraremos en el recibo de marzo). Esta posibilidad de obtener tarjetas también la ofrecemos a toda la ciudadanía. El procedimiento:*



- Ikastolak, familia eta langile guztientzat bi txartel, gutxienez, eskatuko dizkie antolatzaileei.
- Familiaren batek edo langileren batek, txartela EZ BADUZUE EROSI NAHI, jarraian duzuen inprimakia bete behar duzue, beranduenez otsailaren 17rako: <https://forms.gle/zS9ysg8fmxkXw3LJA>
- Norbaitek txartel bat baino gehiago nahiko balu, familian, lagunartean... saltzeko, bete inprimakia: <https://forms.gle/AZqnmfnLD2d1zDdYA>. Epea otsailaren 17an amaituko da.

Eskolaz kanpoko ekintzak

1. Ihoteak, Inauteriak eta eskolaz kanpoko ekintzak

Ihoteak eta Inauteri jaiak direla eta, eskolaz kanpoko ekintzetako abisuak doaz jarraian:

- **Otsailaren 18an**, eskolaz kanpoko ekintzak normaltasunez izango dira.
- **Otsailaren 19an ez da** Eskola Kiroleko **jardunaldirik izango.**
- **Otsailaren 25ean** eskolaz kanpoko ekintzak normaltasunez izango dira.
- **Otsailaren 26ean ez da** Eskola Kiroleko **jardunaldirik izango.**

Apartekoak

1. Ihoteetako dantzak

Ihoteak hurbil ditugunez, dantzak ikaste-ko/gogoratzeko aukera izango da **bihar larunbata, otsailak 12**, Abaraxkaren eta Soinuenearen eskutik, **16:30ean, Soinuenean**. Animatu!

- *La ikastola solicitará a los organizadores dos tarjetas para familias y trabajadores-as.*
- *En caso de que alguna familia o alguien del personal no desee adquirir la rifa, deberá rellenar el siguiente formulario, a más tardar el 17 de febrero: <https://forms.gle/zS9ysg8fmxkXw3LJA>*
- *Si alguien quisiera más de una tarjeta para vender a familia, amistades... que rellene el formulario <https://forms.gle/AZqnmfnLD2d1zDdYA>. El plazo finaliza el 17 de febrero.*

Actividades extraescolares

1. Ihotes, Carnavales y actividades extraescolares

Con motivo de las fiestas de Ihotes y Carnaval, los avisos de actividades extraescolares son:

- **El 18 de febrero** las actividades extraescolares se desarrollarán con normalidad.
- **El 19 de febrero no habrá** jornada de Deporte Escolar.
- **El 25 de febrero** las actividades extraescolares se desarrollarán con normalidad.
- **El 26 de febrero no habrá** Deporte Escolar.

Otros temas

2. Bailes de Ihotes

Debido a la proximidad de los Ihotes **mañana sábado 12 de febrero** habrá ocasión de aprender/recordar las danzas, de la mano de Abaraxka y Soinuenea, a las **16:30 en Soinuenea**. ¡Anímate!



2. Haurren irakurle taldea, Manuel Lekuona Bibliotekan

Herri literaturzalea da Oiartzun, zalantzarik gabe. Idazle aldetik oparoa, baina baita irakurle aldetik ere; helduen irakurle taldeak, esaterako, ibilbide luzea du herrian. Orain, 2022ari begira, pauso bat gehiago eman eta **HAURREN IRAKURLE TALDEA** martxan jarri nahi du Manuel Lekuona Udal Bibliotekak, haurrek ere elkartu eta zuen zaletasuna partekatzeko aukera izan dezazuen.

Xabi Salaberria Gonzalez 1545 argitaletxeko kideak gidatuta, hilabetean behin elkartuko da irakurle taldea, bibliotekako ganbaran. Hasieran, **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin osatuko dute taldea, baina aurrerago eskaintza beste adin batzuetara ere zabaldu ahal izatea aurreikusten dute.**

Beraz, irakurtzea maite baduzu eta lagunekin zaletasun hori partekatu nahi baduzu, hauxe duzu aukera!

- **ADINA:** LH5 eta 6.
- **LEKUA:** Manuel Lekuona Udal Bibliotekako ganbara.
- **EGUNA:** hilabeteko lehenengo ASTELEHENA (hasiera martxoaren 7an).
- **ORDUA:** 18:30etik 19:30era.
- **IZENA EMATEKO:** bibliotekan, otsailaren 24a baino lehen (atxikita duzuen orria beteta eraman).

2. Grupo de lectura infantil, en la Biblioteca Manuel Lekuona

Oiartzun es, sin duda, un pueblo aficionado a la literatura. Prolífico en escritores-as, pero también en lectores-as; el grupo de lectura de adultos, por ejemplo, tiene una larga trayectoria en el pueblo. Ahora, de cara a 2022, la Biblioteca Municipal Manuel Lekuona quiere dar un paso más y poner en marcha el GRUPO DE LECTURA INFANTIL, para que los niños-as también puedan juntarse y compartir esa afición.

Conducido por Xabi Salaberria González, miembro de la editorial 1545, el grupo de lectura se reunirá una vez al mes en el desván de la biblioteca. Inicialmente, el grupo estará formado por alumnos-as de 5º y 6º de Primaria, pero más adelante se prevé que la oferta pueda ampliarse a otras edades.

Así que, si te encanta leer y quieres compartir con tus amigos-as esa afición, ¡esta es tu oportunidad!

- **EDAD:** LH5 y 6.
- **LUGAR:** desván de la Biblioteca Municipal Manuel Lekuona.
- **FECHA:** primer LUNES DE MES (inicio 7 de marzo).
- **HORA:** de 18:30 a 19:30.
- **Para INSCRIPCIÓN:** en la Biblioteca, antes del 24 de febrero (llevar cumplimentada la hoja adjunta).

